



**EBAZPENA, 2011ko EKAINAREN 2ko HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIARENA, ZUZENDARI BERAREN 2010eko AZAROAREN 24ko EBAZPENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MAISU-MAISTREN, BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN ETA LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOETAKO PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOEN EBALUAZIOAN JARDUNGO DUTEN KALIFIKAZIO-BATZORDEAK IZENDATZEN DITUENA, ALDATZEN DUENA.**

---

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2010eko urriaren 27ko ebazpenaren bidez arautu zen Maisu-Maistren, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoetako praktiketako funtzionario izendatutako pertsonen 2010/2011 ikasturtean egin behar duten praktika-fasea.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2010eko azaroaren 24ko ebazpenaren bidez izendatu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-Maistren, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako praktiketako funtzionarioen ebaluazioan jardungo zuten kalifikazio-batzordeak.

Bizkaiko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Kalifikazio Batzordeari dagokionez, izendatutako batzordeburua aldatu behar da.

Horregatik,

**EBATZI DUT**

Lehen.- Ondorengo terminoetan aldatzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2010eko azaroaren 24ko ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-Maistren, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako praktiketako funtzionarioen ebaluazioan jardungo zuten kalifikazio-batzordeak izendatu zituen.

Manuel Bonet Romero Bizkaiko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Kalifikazio Batzordeko buru izendatzea, Pedro José Macho Aguiloren ordean.

Bigarrena.- Izendapen hori Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web orrian: [www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net) argitaratu ematea.

Hirugarrena.- Kideek batzordeetan parte ez hartzeko eta beroriek arbuiaitzeko arrazoiek eragingo diete Kalifikazio Batzordeetako kideei, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legeak 28. eta 29. artikuluetan xedatutakoaren arabera.



Laugarrena.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari gorako helegitea jarri ahal izango zaio ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, ebazpen hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 2a

**LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA**

**JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA**